



## NAHIKO 2007-09 IKASLEEKIN SAIO BEREZIAK.

### 3UD: BERDINTASUNA. SAIO BEREZIA (2008ko maiatza-ekaina)

#### HELBURUAK ETA EDUKIAK

**Berdintasuna biziarazi eta aldarrikatu**, neskez eta mutilez osatutako taldeetan BERDINTASUNAREN OKA jolastuz eta, jolas honen bitartez, aurreko bi saio berezietan (aurreko bi unitate didaktikoetan) landutakoa gogoratu eta berrikusi: zainketa eta aniztasuna.

Bizitzan bezala (eskolan, etxean, kalean... bezala) oraingoan **neskak eta mutilak elkarrekin** arituko gara. Aurreko saioetan neskak eta mutilak (talde bakoitza) bere aldetik trebatu gara. Orain berriz, trebatu ondoren, mutilek eta neskek pertsonen zainketa eta aniztasunaren errespetua ikasi ondoren, elkarrekin jolastuko gara.

Eskolan 3. unitate didaktikoan landu dugun "Berdintasunaren Oka" erabiliko dugu horretarako. Jolas honek edozeinen bizitza irudikatzen du, **edozein neska edo mutilen bizitza ibilbidea**. Ibilbide horretan neskak eta mutilak gauzak ikasten eta egiten doaz, bere burua ezagutu eta garatzen dute eta bere harremanak eraikitzen dituzte.

→ Hori adierazteko, taulan jolasteko fitxak neskak eta mutilak irudikatzen dituzten panpintxoak izango dira. Talde bakoitzak bat izango du eta taulatik aurrera mugituko dute daduaren balioaren eta jokoaren frogen arabera.

**Lauki berdeek** neska-mutilen garapen eta bilakaera hori adierazten dute: berdintasunaren okan neskek eta mutilek denetatik ikasten dute, ahalmen guztiak garatzen dituzte eta bizitzaren arlo guztietarako prestatzen dira **pertsona autonomo eta osoak** izateko. Ondorioz, nahiz neskak nahiz mutilak, **pertsona anitzak** dira, nork bere buruaren jabe, nork bere ezaugarri eta bereizgarriekin.

→ Horregatik, 2. saio berezia gogoratuz, lauki berdeetan erortzen direnean, taldekideak pertsona horiek bezala karakterizatu beharko dira hurrengo lauki berdera salto egin nahi badute (lauki bakoitzean taldekide bat). Bidean aurrera egiten duten neurriak, taulako gizon emakume anitz eta autonomo bilakatzen joango dira bukaerara berdintasunaren eraginez itxuraldatuta iritsiko direlarik.

Hori lortzeko, bere ibilbideak hiru osagarri behar ditu:

- **Lauki txuriek** zainketa adierazten dute (1. unitatea) → 1. saio berezia gogoratuz, zainketaren froga gainditu beharko dute: mahaia jarri eta jaso, umea erantzi, garbitu, pardela aldatu eta jantzi. Frogak errepikatu beharko dituzte, baina beti taldekide ezberdinak egin beharko ditu, trebetasuna pertsonala da eta zainketa taldekide guztien zeregina da, ez espezialista batzuenak.
- **Lauki gorriek**: lan mundua adierazten dute (4. unitatean sakonduko da) → 3. unitate didaktikoa gogoratuz egia-gezurra frogak egingo dira. Laukitxo bakoitzeko 12 esaldi daude, zortzi 3. unitatean erabilitako jolasekoak, beste lau berriak. Taldean erantzun beharko dute. Asmatzen badute dadoa jaurti ahal izango dute eta jolasean jarraitu.

- **Lauki lilek/moreek** asialdia adierazten dute (jolas tailerra) → lauki horietan taldekideek banan-banan jolas bat egin beharko dute (aisialdia pertsonala baita, eta guztiontzat beharrezkoa, ez soilik batzuentzat). Jolas batzuk nesken jolasak kontsideratuak izan dira (soka saltoa, hula-hop uztaia, txorkatilako baloia...), beste batzuk mutilenak (txiba, dardoak, boloak...) eta beste batzuk neutroak (badminton, igela...). Berdintasunaren okan, arlo eta ahalmen guztiak garatzeko, lehenengo neskek mutilen ohizko gauzetan aritu beharko dira eta mutilak nesken ohizko gauzetan. Eta gero alderantziz, ahal bada, denak denetara jolastuz.

Azkenik, **lauki horiek**, oka jolasaren ohizko lauki bereziak dira → zubitik zubira, dadotik dadora, espetxea... taulan bertan agertzen da bakoitzean egin beharrekoa.

HIRU ZATI		
Sarrera (denok elkarrekin): AURKEZPENA.	10 m.	15 m.
Jolas tailerra: BERDINTASUNAREN OKA.	70 m.	90 m.
Bukaera: ONDORIOAK.	10 m.	15 m.
Denetara	90 m.	120 m.

### 1. ZATIA: AURKEZPENA

Hasiera emateko, saioa girotzeko eta ikasleak zentratzeko unea da:

- **3.UD**an zer egin duten? Jolasak? Koadernoak? Zein da gai nagusia? Zer egin duzue? Zer ikasi duzue?
- Zer da **berdintasuna**? Zer esan nahi du? Zertan nabaritzen da dagoenean? Zer nabaritzen da ez dagoenean? Berdinak al gara? Zertan bai eta zertan ez?
- **Jolas bat, saio bat** egingo dugu berdintasuna hobeto ulertzeko: Saioa nolakoa izango den azalduko zaie, izango dituen zatiak, zein talde egingo ditugun, nolako dinamika erabiliko den, taularen eta bere laukien azalpena, zergatik oraingoan denak elkarrekin, etabar (ikus aurreko zatia: helburuak eta edukiak).

### 2. ZATIA: BERDINTASUNAREN OKA (JOLAS TAILERRA)

Lau material kutxa:

- Jolasak: dadoak, boloak, uztaia, soka...
- Karakterizatzeko pelukak, txapelak, kaskoak...
- Zainketa egiteko panpinak, arropa, platerak, edalontziak...
- Taula erraldoia (1,30 x 1 m.) Dado erraldoia. Sei (6) panpintxo-fitxa. Froga gorrien txartelak (lauki gorri bakoitzeko 16 esaldi), talde bakoitzaren ibilbidearen kontrol-orria...

**Taldeak** egin (laukoteak) eta kokatu ondoren (bere jolaslekuan, bere bazterrean), talde bakoitzak bere panpina-fitxa aukeratu, dadoa bota eta jolasa hasten da.

Dadoa bota behar duen **jokalariak** erdira irten eta botatzen du: berak egiten die galdera taldekideei, bera jantzen dute taldekideak, berarekin egiten da jolasa...

Ibilbidean egiten eta gainditzen dituzten frogak, ibilbidearen **kontrol-orrian** markatuko dira, ibilbidearen bukaeran dena osatuta eduki beharko dutelarik. Horrela izango ez ballitz, atzera egin beharko lukete, euren fitxa osatu arte eta, orduan, erdigunera iritsi.

### LAUKI BERDEAK: KARAKTERIZATIOA

Hurrengo lauki berdera salto egiteko taldeko jokalaria bat lauki horietako elementuren batekin karakterizatu beharko dute:

- Gehienetan buruan zerbait jantzi beharko diote: peluka, txapela, kaskoa...
- Beste batzuetan, eskuetan elementuren bat eraman beharko du: fregona, erosketen zestua, mobila, poltsa...
- Beste batzuetan bibotea, bizarra, patillak... margotu beharko diote aurpegian, edota makilatu.

Behin halako karakterizazioa egin ondoren, horrela mantendu beharko da jokalaria partida bukatu arte. Helburua taldekide guztiak karakterizazioaren bat izatea izango litzateke, beraz, lauki berdean erortzean, taldekide ezberdina karakterizatuko da guztiak egin arte. Behin taldekide guztiak karakterizatuta daudenean, ez dute froga hau gehiago egingo.

- 5 zb: peluka horia, fregona eta kuboak...
  - 9 zb: peluka gorrixka, gomak, gantxoak, badmintong raketa...
  - 14 zb: janari zestua, bibotea margotu...
  - 18 zb: sonbreroa, prismetikoak...
  - 23 zb: peluka, panpina...
  - 27 zb: peluka, mugikorra, poltsa...
  - 32 zb: nahiko txapela, patillak margotu...
  - 36 zb: kaskoa (bizikletana)...
  - 41 zb: peluka, lepokoak...
  - 45 zb: pelukak, gantxoak, gomak...
  - 50 zb: patillak eta bibotea margotu...
  - 54 zb: bibotea margotu, gorbata...
  - 59 zb: pelukak...
- Edozeinentzat: lepokoak, pultserak, anilloak, erlojuak, betaurrekoak...

### LAUKI ZURIAK: ZAINKETA

Lauki zurian erortzen denean, hurrengo txandan, laukitik ateratzeko (dadoa jaurti ahal izateko) zainketaren froga gainditu beharko dute.

- Denbora bat emango zaie taldeko bi pertsoneri bien artean lan biak egiteko: umearena ala bazkariena.
- Denbora horretan ondo egiten badute, aurrera taulan! Bestela, geldik, hurrengo txandan berriro!
- Egin badute, lana egin duenari markatzen zaio kontrol-orrian.

Eta horrela beti, binaka-binaka, taldeko guztiak lan biak egiten duten arte. Guztiak froga gainditzen dutenean, ez dute gehiago halako frogarik egingo.

### LAUKI MOREAK: AISIALDIA

Lauki morean erortzen denean, hurrengo txandan, laukitik ateratzeko (dadoa jaurti ahal izateko) jolas bat gainditu beharko dute.

- Hemen ere binaka atera beharko dute jolasa egitera eta bien artean (biek jolastuz) jolasa egin.
- Jolas bakoitzean dema edo erronka bat jarriko zaie.
- Gaintzen badute, jolas hori jokalaria biei apuntatuko zaie. Horrela binaka-binaka jokalaria guztiak jolastu arte eta guztien artean jolas guztiak gainditu arte.
- Aritu ondoren, jolasa ondo jasota eta berriro erabiltzeko moduan utziko dute.

ERRONKAK (leku eta talde bakoitzari egokitu malgutasunez):

- Bolo guztiak bota arte (bolo erdiak baino gehiago bi pilotekin / nahi adina pilota denbora batean / bi pilotak tartetik pasa eta boloak zutik utzi...
- Dardoak: 100/200 puntu baino gehiago lortu / erdiko zatian sartu guztiak / kolore batean sartu denak (urdina, horia...)...
- Badminton: bata besteari bost bider pasa (denetara hamar) luma lurrera erori gabe...
- Hula-hop: bakoitzak minutu erdi / minutu bat iraun bueltaka gerrian, besoan, lepoan...
- Txorkatilako pilota: bakoitzak buelta kopuru bat lortu trabatu gabe (10/15/20...).
- Igela eta uztai txikiak: denbora batean denak sartzea / erdia baino gehiago sartzea / leku ezberdinetatik sartzea...
- Txibak: dantzatzea denbora batez / biak batera dantzatzea / eskuan dantzatzea...
- Soka saltoa: bakoitzak 20 salto jarraian / biak batera bost salto...

### 3. ZATIA: ONDORIOAK

Atsegina izan da? Ondo pasa dute? Gustora egon dira?

Zer izan da errezena, politena, dibertigarriena? Zergatik? Mutilentzat ere bai? Neskentzat ere bai?

Eta zailena, itsusiena, aspergarriena? Zergatik? Mutilentzat ere bai? Neskentzat ere bai?

Zerbaitek lotsa eman die? Nori? Neskei? Mutilei? Zerk? Zergatik?

Nesken eta mutilek berdin jolastu dugu? Frogak berdin egin ditugu? Zer ezberdintasunak egon dira, zergatik?

Zeintzuk izan dira lehenengoak frogaren berrietan? Neskak? Mutilak?

Binaka izan diren frogetan, nola egin dira bikoteak? Zergatik?

Badaude nesken jolasak eta mutilen jolasak? Zergatik dira iaioagoak neskak jolas batzuetan eta mutilak beste batzuetan?

--

EMAKUNDE-NAHIKO  
2008KO MAIATZA